



ERRIBERRIKO ANTZERKI JAIALDIA

uztailaren 15etik 31ra

EGONALDIAK 2022



Antolatzaileak:

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



FUNDACION
BALUARTE
FUNDAZIOA



cultura
navarra.es



Laguntzaileak:

EGONALDIEN OINARRIAK

Erriberriko Antzerki Jaialdiak bi laneko egonaldi edo ikerketako laborategi proposatzen ditu Nafarroako konpainia profesionalak aurkeztutako proiektu artistikoendako.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak gauzatuko ditu egonaldi horiek, betiere COVID-19ak ezarritako mugekin posible bada Erriberriko 2022ko jaialdia egitea. Ezin badira egonaldiak egin, deialdia eta horrek dakarren guztia bertan behera geldituko dira.

1. NORI ZUZENDUA

Nafarroako arte eszenikoen egile eta/edo konpainia profesionalak aurkezten ahalko dira, eta halakotzat hartuko dira ekonomia-jarduera nagusia arte eszenikoekin lotua duten enpresa eta profesionalak, hala jaso baitago dagokion ekonomia-jardueren gaineko zergan. Forma juridikoa edozein izanik ere, jarduera eta auzotasuna edo helbidea Nafarroako Foru Komunitatean behar dute izan.

2. BALDINTZAK

Arte eszenikoetako sormen artistikoaren edozein alderdirekin lotuak dauden proiektuak aurkezten ahalko dira.

Baloratuko da proiektuak hezkuntzarako atal bat edo jendearekiko bitartekaritza-programa bat jasotzea, eta egindako lana konpainiak nahi duen formatuan aurkeztea (konferentzia, bideoa, aurkezpena, entsegu irekia eta abar), betiere COVID-19ak eragindako osasun-egoerara egokituta, Erriberriko 2022ko Antzerki Jaialdiaren programaren barruan.

3. EGONALDIEN BALDINTZAK

Egonaldiaren iraupena:

Uztailaren 15etik uztailaren 31ra arte, biak barne

Egonaldiaren tokia:

Egonaldi bat Erriberrin egingen da, eta bestea Beiren.

Jaialdiak erabakiko du bi egonaldiak zer tokitan egingen diren eta lanerako espazio bat eskainiko du, herri bakoitzeko udalak utzitako lokal batean, zehazten den ordutegian.

Egonaldiaren zenbatekoa:

Egonaldi bakoitzak 6.000 euroko gehieneko zuzkidura izanen du (BEZa barne), eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak emanen du diru hori.

Jarduera bukatzen denean emanen zaizkio bi kopuru horiek konpainiari; horretarako, 2022ko abuztuaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dituzte egindako gastuak zehaztu eta justifikatzen dituzten fakturak eta txostena.

Onartzen diren gastuak gastu zuzenei dagozkienak dira (zerbitzuen kontratazioa, alokairuak, profesionalak, gastu sozialak, konpainiaren egoitzatik Erriberri edo Beirerako bidaiak, ostalua eta mantenua). Ez dira onartuko, salbuespenak salbuespen (prezioagatiko justifikazioa), Erriberriz edo Beirez kanpoko establezimenduetan egindako ostalua eta mantenu gastuen fakturak, ezta ere – egonaldiak irauten duen bitartean – konpainiako kideak beren etxeetatik egonaldiaren herrira joateko eta handik itzultzeko behar diren bidaietz kanpoko beste joan-etorriak.

Justifikatzeko, aurkeztutako fakturek zalantzarik gabe erantzun beharko diote egindako jarduerari, eta haien data proiektua hautatu zeneko eguna baino geroagokoa izan beharko da.

4. PROIEKTUA AURKEZTEKO EPEAK ETA MODUA

Proiektuak aurkezteko epea 2022ko apirilaren 4an hasi, eta apirilaren 30ean bukatuko da.

Proiektuak eta eskatutako gainerako dokumentuak **programasydifusion@navarra.es** helbidera mezu elektronikoa bidalita aurkeztu beharko dira, gaian hau jarrita: *Erriberri 2022ko egonaldien deialdia*.

Proiektua PDF artxibategi erantsi batean aurkeztu behar da. Egileak edo konpainiaren arduradunak behar bezala sinatuta egon beharko da, eta honako datu hauek eduki:

- Izen-deiturak, telefonoa eta helbide elektronikoa.
- Proiektua aurkezten duen konpainiaren izena eta harremanetarako datuak.
- Egin nahi den lanaren helburua.
- Lantaldearen osaera.
- Proiektuaren arduraduna, edo zuzendari zein koordinatzailea.
- Lanerako kronograma.
- Aurrekontu zehaztua.
- Proiektua aurkezten duen konpainiaren edo profesionalaren EJZko inskripzioaren kopia, bai eta gainerako dokumentua ere.
- Hala badagokio, hezkuntza-atala edo ikusleekin bitartekaritza egiteko programa.

Hautatzen diren konpainiek, egonaldia bukatu ondoren eta 2022ko abuztuaren 31 baino lehen, memoria bat idatzi beharko dute. Idazki horretan, obraren garapena eta egoera jasoko dira, baita obrak izan dezakeen etorkizuna eta esperientziaren balorazio bat ere. Gainera, egonaldien kargura egindako gastuei buruzko fakturak aurkeztu beharko dituzte aipatutako data baino lehen.

5. BALORAZIOA ETA EGONALDIEN HAUTAKETA

Egonaldietarako proiektuen hautaketa batzorde batek egingen du. Batzorde haren buruak jaialdiaren zuzendari artistikoak izanen dira (María Goiricelaya eta Ane Pikaza), eta hauek, batzordeko kideak:

- Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendaria, Lorenzo Garcia Echeгойen.
- Programa Artistikoen eta Hedapenaren Ataleko burua, Marisol Martínez Caspe.
- Foru Komunitateko arte eszenikoen arloan entzute handikoak diren bi aditu.
- Idazkaria: Kultur Ekintza Zerbitzuko goi mailako teknikari bat.

Aurkezten diren proiektuen egokitasuna baloratuko du batzordeak, irizpide hauen arabera:

- Proiektuaren kalitatea, eta proiektua bat datorren deialdiaren xedearekin, helburuarekin eta eremuarekin.
- Talde artistikoaren eta talde teknikoaren egokitasuna.
- Proiektuaren originaltasuna eta bideragarritasuna etorkizunean eszenaratzeko.
- Aukerak, proiektua Foru Komunitateko beste gune batzuetan ekoizteko eta proiektatzeko datorren denboraldian.

Erabakia pertsona eta konpainia interesdun guztiei jakinaraziko zaie 2022ko maiatzaren 30a baino lehen, proiektua aurkeztean emandako helbide elektronikoen bidez.

Egonaldia egingen duten konpainien lana hasten ahalko da jakinarazpena jaso eta biharamunean, baina beharrezkoa da konpainia Erriberrin eta Beiren egotea jaialdiak irauten duen bitartean (uztailaren 15etik uztailaren 31ra arte), zehazten den lan ordutegian.

Harremanetarako:

Amalia Jiménez Atienza
Arte Sorkuntzaren eta Hedapenaren Ataleko goi mailako teknikaria
Tel. 848 42 46 86 / E-posta: ajimenea@navarra.es

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an.